



■ SAGAR MOREAK

Afaria eta kale ekintza, bihar

Hernaniko Sagar Moreak asanblada feministak antolatuta, afari feminista izango da bihar, gaueko 21:00etan. Menu beganoa ere izango da. Horrez gain, afaria baino lehen, txotx denboraldiko azkeneko kale ekintza egingo dute: *Poteretze Feminista* Plaza Beritik. Afaria berotzeko egingo den bueltaxka izango da, poteoa. ■

■ GAZTELEKUA

Panako komunak margotuko dira

Futbol txapelketari erreleboa hartuko dio gaur Panako komunetako paretaren margotzeak. Mural bat egingo dute gazteek Karabeleko igogailuaren alboan dauden komunetan. Hitzordua 16:00etan jarri dute Gaztelekuan, edo zuzenean Panan bertan, margotzeko edo han egoteko. ■

■ GOIZUETA

Umore Ona-Gaintxu AFT, gaur

Aste Santuaren ondotik Goizuetako Umore Ona areto futbol taldeak partidua izanen du gaur, etxean, Gaintxu AFT taldearen aurka, 20:30etan. Azken txanpan sartuak dira eta Gaintzuriketaren aurkako partidua irabaztera irtengo dira goizuetarrak bai edo bai. ■

■ PRESO-IHESLARIAK

Konzentrazioa gaur, Zinkoenean

Konzentrazioa deitu dute gaurko, Hernaniko preso eta iheslarien senide eta lagunek. Iluntzeko 20:00etan elkartuko dira, Zinkoenean. Herritar guztiei luzatu diete deia, beraiekin bat egiteko. ■

■ ZINEA

Gaur, lehen emanaldia

Es por tu bien pelikularen lehen emanaldia gaur egingo da, 22:30etan Biterin. Bihar bi saio eskainiko dira 19:30etan eta 22:30etan. ■

■ HITZALDIA

Euskalduntze berantiarra, aztergai

Hitzaldia Luis Mari Zaldua filologo eta onomastikari urnietarrak emango du Biterin, asteazkenean 19:00etan, eta atzo aurkeztu zuen kultur etxean bertan, Eñaut eta Beñi Agirrerekin batera.

EUSKERA berantiarraren teoria: egia ala gezurra? izenburupean Luis Mari Zaldua euskal filologo eta onomastikariak hitzaldia emango du datorren apirilaren 26an, 19:00etan, Biteri kultur etxean. Dobera Euskara Elkarteak eta Hernani Errotzenen ordezkarria, Beñi Agirre. Interes eta ika mika haundia piztu duen gaia izan da azken urteotan eta Luis Mari Zaldua urnietarra gaiari argi pixka bat ematen saiatuko da.

Hitzaldia atzo aurkeztu zuten Biterin eta bertan izan ziren Zaldua, Eñaut Agirre eta Hernani Errotzenen ordezkarria, Beñi Agirre. Interes eta ika mika haundia piztu duen gaia izan da azken urteotan eta Luis Mari Zaldua urnietarra gaiari argi pixka bat ematen saiatuko da.

Datorren asteko hitzaldia euskera eta historiaren inguruan egin diren hitzaldien barruan kokatzen da. «Hau hirugarrena izango da» aurkeztu zuen Beñi Agirrek. ETBk egin zuen *Vasconiako Historia bat* dokumentalaren sail batetik dator euskalduntze berantiarraren hipotesia. Luis Mari Zaldua urnietarra lan erraldoia egin du Urumeako Zilegimendietako Toponimiari buruz, eta Doktoretza Tesia egin zuen.

Hernani izenaren inguruan, sorpresa baten berri

Aurkezpenean hitzaldiaren nondik norakoak azaldu zituen, eta aurreratu zuen: «sorpresaren bat ere egongo da Hernani izenaren inguruan».

Hitzaldia bost ataletan banatuko du. Lehendabizikoan euskalduntze berantiarraren teoria berreskuratzen dutenek



Eñaut Agirre, Luis Mari Zaldua eta Beñi Agirre Biteriko aurkezpenean.

egin duten lana ikusiko da. «Labur, bilduma bat egingo dugu azalduz zer den euskalduntze berantiarraren teoria».

Bigarren atalean teoria hau noiz, nork eta zergatik sortu zen azalduko da. Hirugarren atalean zenbait datu emango dira, dokumental horretan ematen ematen direnak, entzuleek beraien ondorioak atera ditzaten. «Gaia ulertzeko ezinbesteko datuak izango dira», Zaldua-aren esanetan.

Laugarren atalean Iruña Veleiako auziarekin lukeen babilizko lotura edo harremana azalduko da, ondorioak eman gabe eta, azkenik, galdera erantzunen txanda etorriko da.

Horrez gain, Zaldua azalduko du zer lotura duen euskalduntze berantiarraren teoriari bere Doktoretza Tesiarekin eta egin dituen ikerketa lanekin. «Nik ez dut euskalduntze

berantiarra ikertu. Gertatzen dena da nik argitaratu ditudan ikerketetako datuak zuzenean daudela lotuak eztabaidarekin».

«Euskal jatorria ez duten toponimoak dira interesgarrienak euskera ikertzeko»

Onomastikariak izen bereziak ikertzen dituzte. Pertsonen edo tokien izenak. «Guk toponimo horiek ikertzen ditugu. Mitxelenak zioen hizkuntza zaharren biltegi aberatsena zirela toponimoak. Eta euskeraren kasuan garrantzitsua izan da oso, iluntasun bat egon delako. Guk erabiltzen dugu toponimia euskeraren historia aztertzeko. Badaude toponimo batzuk bereziki interesanteak direnak eta euskeraren historia ikertzeko toponimo emankorrenak, abe-

ratsenak eta onenak dira euskal jatorria ez dutenak. Batez ere jatorri indoeuropearra dutenak; ama bukaera dutenak, esaterako. Zergatik? Horrek erakusten duelako euskaldunek nola moldatu dituzten euskerara. Egokitzapen horiek erakusten digute zeintzuk diran euskera beraren izaeraren ezaugarriak».

Toponimo horiek ez ziren aztertu lehenago Zaldua egin arte eta bere ikerketaren ondorioak zuzenean daude lotuak euskalduntze berantiarrarekin. «Euskalduntze berantiarra defendatzen dutenek egin beharreko lehen pausoa zen nik ikertu nituen toponimoak ikertu, onartua baitago toponimo horiek direla adierazle garbiak lehen zeuden hizkuntza indoeuropear horienak». Hitzaldian azalduko ditu zeintzuk diren ondorio horiek. ■

OTSUA-ENEA
Asteartetik igandera eguerdilan irekita
Osiñaga auzoa
Tel. 943 55 68 94

MARISCOS HERNANI
Javier Juanet
609 674 344
Kale Nagusia, 20 - 20120 Hernani
943 555 156
mariscos hernani

Garayar autobusak
Sorgintza auzoa, Hernani (Gipuzkoa)
Tel. 943 55 65 58 Fax: 943 33 12 08
mgarayar@autobusgarayar.es

Zerbitzu diskrezionalak (Eskolarrak)
Autobus zerbitzuak Linea erregularak

•Hernani •Donostia
•Aiete •Umiela •Andoain

☎ | TAXIAK: 943 550093 | UDALTZAINGOA: 092 | DYA: 943 464622 | AUTOBUSAK: Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korroa Goizueta-Hernani: 948 514037 | ANBULATORIOA: 943 006666 - 943 203020 | JOKALARI / ALKOHOLIKO ANONIMOAK: 943 331103
✚ / Egunez: A. Etxebarria Andre kalea, 48 (Hernani) 943 551793 / Gaeuz: Etxebeste Elkano, 9 (Hernani) 943 552087

EGURALDIA
GAUR Tenperaturak gorako bideari eutsiko dio. Hego-ekialdeko haizea ibiliko da zenbait momentutan eta tenperatura egunaren erdiko orduetan 20°C-ra gerturatuko da. Zeruan aldaketarik ez. **Min.6° / Max.20°**
BIHAR Eguzkia bistan izango da eta egunez tenperatura 22-25°C-ra igoko da. Zerua urdin agertuko da berriz ere. Hego-ekialdeko haizea ibiliko da. **Min.10° / Max.23°**
(euskaime)

■ PALA



Ariane Arrieta eta Amaia Irazustabarrena GRAVNI tornean ere jokatzen ari dira.

Hiru bikote hernaniar, GRAVNI torneoko finalerdietan

Nafarroaren aurka jokatuko dituzte bihar hiru finalerdiak. Bi bikote Abadiñon ariko dira trinketean, eta Larrabetzuko frontoian, bestea.

GRAVNI txapelketa finalerdietan da jada, eta hernaniarrak protagonista dira pala txapelketan, bai frontoian eta baita trinketean ere. Asteburu honetan hiru finalerdietan hartuko dute parte.

Trinketean eta 22 urtez azpikoetan Maider Huizik eta Amaia Ariztegit jokatuko dute

bihar Abadiñon, 16:00etan, Nafarroako bikotearen aurka. Bestetik, nagusien mailan Ariane Arrieta eta Maitanek jokatuko dute leku eta ordu berdinean, Nafarroako bikotearen kontra, baita ere.

Frontoian, berriz, Amaia Irazustabarrena eta Maider Mendizabal hernaniarrak

dira Gipuzkoaren ordezkari, nagusien mailan. Larrabetzun jokatuko dute bihar arratsaldeko 16:30etan hasiko den ekitaldian. Hauek ere Nafarroa dute finalerako bidean kontrario. Garaipena lortuz gero, finalean sartuko lirarteke, baina aurkari gogorak dituzte aurrez aurre. ||

■ KZ GUNEA

Maiatzeko ikastaroak prest daude

Maiatzaren 2an hasiko dira hamar ikastaro KZ Gunean. Izena eman daiteke Biterin, 943 02 36 50 telefonoan edo 'www.kzgunea.eus'.

MAIATZEAN ere egongo dira KZ Gunean ikastaroak, eta asteartearekin, maiatzaren 2an, hasiko dira lehendabizikoak. Guztira, 8 ikastaro presentzial eta urruneko beste 2 egiteko aukera izango da, eta denetan izenematea zabalik dago, debalde.

Oinarrizko internet, sare sozialak 2.0, google apps, smartphoneak eta tabletak eta software librea landuko dira.

Interesa daukanak, Biteri kultur etxera jo dezake. Bestela, telefonoz deitu, 943 02 36 50ra, tutor.hernani@kzgunea.net helbide elektronikora idatzi edo www.kzgunea.eus webgunean erregistratu. ||

Oinarrizko Internet

● Internet KZgunea ikastaroa. Maiatzaren 15etik 26ra, 16:00-18:00, euskeraz.

● PCa, teklatura eta xagua erabiltzen ikasi. Maiatzaren 10etik 12ra, 16:00-18:00, euskeraz.

● Ordainketa seguruak interneten. Maiatzaren 29tik 30era, 16:00-18:00, euskeraz.

Sare Sozialak 2.0

● Sare Sozialak ikastaroa. Maiatzaren 3tik 12ra, 09:00-11:00, gaztelaniaz.

Google Apps

● Google Drive. Dokumentuak bildu eta partekatu. Maiatzaren 2tik 3ra, 16:00-18:00, gaztelaniaz.

● Gmail. Posta elektronikoa baino gehiago. Maiatzaren 4etik 5era, 16:00-18:00, gaztelaniaz.

Smartphoneak eta Tabletak

● Smartphoneak eta tabletak; lortu zure Android gailuen etekinik handiena. Maiatzaren 22tik 30era, 09:00-11:00, euskeraz. 18:00-20:00, gaztelaniaz.

Software Librea

● Ofimatika ikastaroa. Maiatzaren 8tik 19ra, 18:00-20:00, euskeraz.

Urruneko Formazioa

● Norbere erabilerako Google Aplikazioak. Maiatzaren 2tik 31ra, gaztelaniaz.

● Marka pertsonala eta LinkedIn. Maiatzaren 2tik 17ra, gaztelaniaz.

■ ARRAUNA

Autobusean Sestaora bihar, animatzera

Hernaniko Arraun Elkarteko bost batelek zita daukate asteburuan, Euskadiko Batel Txapelketan. Bihar Sestaon sailkatze probak jokatuko dituzte, 15:30etan, eta igandean jokatuko dira finalak, 11:00etan. Bihar Sestaora joateko 12:30etan autobusa aterako da, eta guraso edo zaleek ere aukera dute klubeko kideekin joateko. Horretarako, hernani.arrauna@gmail.com helbidera idatzi behar da. Iganderako plana, berriz, biharko emaitzen arabera antolatuko dute-lak jakinarazi dute. ||

■ LITERATURA

Bi zita, Literaturaren Egunaren harira

Etzi Literaturaren Nazarteko Eguna ospatzen da eta datorren astear- tean literatur solasaldia izango da Biteri kultur etxeko liburutegian. Natalia Ginzburgenen *Las pequeñas virtudes* liburuaren kontaketa egingo da, 19:30etan. Hurrengo egunean, ipuin kontaketa egingo du Oihana Etxegibelek Biterin; 17:30etan hasiko da 3-4 urtekoen- tzako saioa, eta ordu erdi beranduago, 18:00etan, 5-7 urtekoen txanda izango da. ||

■ MAIATZAK 1

LABek autobusa Bilbora, Maiatzaren 1ean

Langilearen Eguna gero eta hurbilago dago, eta Maiatzak 1erako manifestaldi desberdinak antolatu dira. LAB sindikatuak autobusa antolatu du Bilbon aingoko den manifestaldi nagusirako, eta apun- tzeko LABeko egoitzan edo Garin, Zipotza, Irunberri eta Aitzaga tabernetan eman daiteke izena. 10:00etan irtengo da autobusa Atsegindegitik, eta 10:15etan Lasarten, Euskotrenetik. ||

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 20:00ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

† JOSE ESNAOLA MUGICA

JAUNA
(Juana Garmendiaren alarguna)
Atzo hil zen, 86 urte zituela, Elizakoak
eta Aita Santuaren Bedeinkazioa hartuta

- Goian Bego -

Haren ezkon anai-arrebak, ilobak eta gainerako ahaideek.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitzela **BIHAR, LARUNBATA**, arratsaldeko **ZAZPIETAN, SAN JOAN BATAIATZAILAIREN** parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Hernanin, 2017ko apirilaren 21ean

OHARRAK: Gorputza Hernaniko ORBEGOZO EHORKETA TANATORIOAN egongo da gaur, ostirala, eguerdiko 12:00ak arte.

† III. URTEURRENA

Martin Zabalegui Arrayago
2014ko apirilaren 18an hil zen, 77 urterekin

-Goian Bego-

Haren familia.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitzela **BIHAR, LARUNBATA, goizeko BEDERATZIETAN, AGUSTINDARREN** elizan, egingo den urtebetetzeko mezara. Aldez aurretik, mila esker.

Hernanin, 2017ko apirilaren 21ean

IRAGARKI MERKEAK

Etxea salgai erdialdean, 97 m2, txoko eta baratzarekin. Deitu: 675 179 804

ETXEKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, persianak... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.

Iniigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura... Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)